

HITZA

Ekonomia sozial eraldatzailea sustatzeko Albergga taldea osatu dute

Zumaiako Udalak iaz hasitako ZKOOP egitasmoan du jatorria sortu berri duten taldeak

- Ekonomia «pertsonek zerbitzura» egotea nahi dute, eta ideia proiektuak garatu nahi dituzte // 4

Orio Jesus Mari Peronak XVIII. mendeko fragata baten maketa zaharberritu du // 3

Azkoitiko Erdi Aroko dokumentazioaz bi liburuxka aurkeztuko dituzte

Eusko Ikaskuntzak eta beste hainbat lagunek 1234tik 1535era arteko Azkoitiko Udaleko artxiboko funtsak, eta 1555era arteko kontuak digitalizatu eta transkribatu dituzte. Gaur aurkeztuko dute lan hori, 19:00etan, Elkargunean // 7

Iraetako Errota Harria txapelketan Paulo Azpiazu harri jasotzailea izan da irabazlea

Santa Ines jaien barruan jokatu zuten txapelketa igandean. Bost harri jasotzailek parte hartu zuten, eta 107,2 kiloko bola 31 aldiz altxatu zuen Zarauzko bizilagunak. Iraetako Binakako Pilota Txapelketa Jon Mirandak eta Adonis Gelisek irabazi dute // 5



TREBA EGITASMOA ABIATU DUTE

Zarauz Herri Hezitzailea lantaldeak hitzaldiak eta ikastaroak antolatu ditu gurasoentzat eta gazteentzat, otsailetik apirilera bitartean // 2

ARITZ MOTOZABAL

Hileko zozketak

20

TOPIC Tolosaldeko nazioarteko txotxongilo zentroa

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: 20]

943-65 04 14
Euskal Herria plaza
TOLOSA
www.topicolosa.com



21

ALBAOLA Itsas kultur faktoria

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: 21]

943-39 24 26
PASAI SAN PERO
www.albaola.com



22

HITZA kideen TXOKOA

22

EKAIN FAST + EKAIN ABENTURA
EKAINBERRI museoa

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: 22]

943-86 88 11
ZESTOA
info@ekainberri.com
www.ekainberri.com



Gazteak eta gurasoak trebatzeko hitzaldi-tailerrak antolatu dituzte

Otsailean hasi eta apirilera bitartean, bost saio eskainiko ditu Zarautz Herri Hezitzaileak • Lehena otsailaren 1ean izango da, Nerea Mendizabalen eskutik

-ARITZ MUTIOZABAL

Zarautz Herri Hezitzailea lantaldeak doako hainbat hitzaldi eta tailer antolatu ditu datozen hilabeteetarako, herriko gurasoak zein gazteak puri-purian dauden gaietan trebatzeko asmoz. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak sustatutako Treba egitasmoaren barruan kokatzen den eskaintza da, eta bi multzotan banatuko dute. Alde batetik, bigarren urtez Treba Gurasoak saioak prestatu dituzte, gurasotasun positiboan oinarritutako saio pedagogikoak, eta bestetik, Treba Gazteak gazte eta nerabeei zuzendutakoak.

Gurasoentzat hiru saio eskainiko dituzte, eta hirurak Etxezabalako aretoan izango dira, 18:00etatik aurrera, euskara hutsen. Lehena otsailaren 1ean izango da, eta Nerea Mendizabalek *Seme-alaben autoestimua elikatzen* hitzaldia eskainiko du; urtarrilaren 26a bitartean eman ahalgo da izena. Otsailaren 8an eta 15ean, *Zer egin dezakegu gure haur eta nerabeei sexualitate aske eta osasuntsua izan dezaten?* tailerra izango da, Eider Goibururen eskutik. Azkenik, apirilaren 19an, *Arauk eta mugak familian*. Nola ezarri era asertibo batean hitzaldia eman-go du Leyre Canok.

Gazteentzat, berriz, hitzaldi eta tailer bana antolatu dituzte, eta 16-30 urte bitartekoei zuzen-



Treba egitasmo hitzaldi eta tailerren aurkezpenean, Zarautz Herri Hezitzaileko kideak. ARITZ MUTIOZABAL

Eskaintzak

TREBA GURASOAK

Otsailak 1, asteazkena. *Seme-alaben autoestimua elikatzen* hitzaldia, Nerea Mendizabalen eskutik; 18:00etik 19:30era, Etxezabalaren. Izen ematea, ostegun honetara bitartean.

Otsailak 8 eta 15, asteazkenak. *Zer egin dezakegu gure haur eta nerabeei sexualitate aske eta osasuntsua izan dezaten?* tailerra, Eider Goibururen eskutik; 18:00etatik 20:00etara, Etxezaba-

lan. Izen ematea, otsailaren 2ra bitartean.

Apirilak 19, asteazkena. *Arauk eta mugak familian*. Nola ezarri era asertibo batean hitzaldia, Leyre Canoren eskutik; 18:00etatik 19:30era, Etxezabalaren. Izen ematea, apirilaren 13ra bitartean.

TREBA GAZTEAK

Otsailak 22, asteazkena. *Argazkilaritza: Ispilua* (16-22 urte bitartekoentzat), Ido photographyren eskutik; 17:30etik 19:30era bitartean, Gaztelekuan.

Izen ematea, otsailaren 16ra bitartean.

Martxoak 21, asteartea. *Autonomiarako etxeko ekonomia* (18-30 urte bitartekoentzat), Kontsumobideren eskutik; 18:30etik 20:30era, Etxezabalako bilera aretoan. Izen ematea, martxoaren 16ra bitartean.

IZEN EMATEAK

Aurrez eman beharko da izena, horretarako ahalbidetuko duten atarian edo Zarautzko Gazte Informazio Bulegoan, astelehene-tik ostiralera, 16:30etik 19:30era.

duriko proposamenak izango dira. Otsailaren 22an, *Argazkilaritza: Ispilua* tailerra emango dute Gaztelekuan, Ido Photographyk gidatuta, eta martxoaren 21ean, *Autonomiarako etxeko ekonomia* hitzaldia izango da Etxezabalaren, Kontsumobideren eskutik.

Edozein jardueratan parte hartzeko –gurasoen zein gazteen eskaintzetan– aurrez eman beharko da izena, horretarako ahalbidetuko duten Google Forms plataformaren bidez edo Zarautzko Gazte Informazio Bulegoan (astelehene-tik ostiralera, 16:30etik 19:30era). Informazio zabalagoa nahi duenak 943-00 51 22 telefonora deitu dezake edo gazteria@zarautz.eus helbidera idatzi.

Bost urtez elkarlanean

Zarautz Herri Hezitzailea taldea udaleko hainbat ordezkari politikok eta arlo askotako beste hainbat teknikarik osatzen dute, baina baita Berritzeguneko, Ludo-tekako eta Gaztelekuko arduradunek ere. Gainera, Bakeolae EDE Fundazioko lantaldeko kideak ere badaude. Bost urte daramatzate elkarlanean hainbat hausnarketa eta egitasmo lantzen.

Bide horretan, azken urteetan egungo interesekoak diren gaiak –esaterako, bullying-a eta erreminta digitalen erabilera eta joko-jorratu dituztela nabarmendu du Hezkuntza eta Gazteria zinegotzi Iruñe Urbietak. «Iaz, Gaztematika Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenera Zerbitzuaren eskutik, formazioan sakontzen jarraitu genuen, eta aurrez bide beretik gatoz. Hortaz, Gaztematikaren eskaintzari bi ekintza aukeratu eta bideratu nahi ditugu. Bartzuk, gurasoei eta hezitzaileei zuzendutakoak, eta besteak, gazteei zuzendutakoak».

Hasiera ederra eman diote Sagardo denboraldiari

JAIA // Azken urteetako etanaren ostean, giro ederrean ospatu zuten igande eguerdian Zurekin Zarautzko ostalarien elkarteak antolatutako Sagardo Eguna. Jaiari ekin aurretik, Aritzako Jose Aristi *Xiplo* eta Mari Paz Rodrigo senar-emazte zirenei aitortza egin zieten. Jarraian, bederatzi upategitako sagardoa dastatzeko aukera izan zuten berataru zirenek.



Igandean Sagardo Eguna ospatu zuten Zarautzen. MARIA MAYA MANTEROLA

'Metabertsoaren gakoak' hitzaldia izango da gaur

GIZARTEA // Enpresa teknologikoak inbertsio garrantzitsuak egiten ari direla, eta Internet berria mota guztietako sektoreak eraldatzen ari dela azaldu du ZarautzOnek, eta gaia sakonago ezagutzeko, *Metabertsoaren gakoak* hitzaldia antolatu du gaurko. Imascono enpresako sortzaile Pedro Lozano ariko da hizlari. Saioa Modelo aretoan izango da, 19:30ean hasita.

Gazumera irteera egingo dute igandean Pagoeta elkartekok

KIROLA // Pagoeta mendi elkar-teak Gazume mendiari itzulia egingo dio igandean, Errezil inguruan. Zailtasun teknikorik gabeko mendi buelta izango da; 12 kilometro inguruko ibilbidea, 500 metroko igoera metatuarekin. Izena Mendizabal kinkiladendaren eman behar dute txangoan parte hartu nahi dutenek. Irteera 07:30ean izango da, Agoueseneko biribilgunetik.



XVIII. mendeko maketa aztertu ondoren, «pieza ona» zela ohartu zen Jesus Mari Perona. JESUS MARI PERONA

Juan Antonio Leizaur marinelak, XVIII. mendean Terranovan naufragio batetik bizirik atera ondoren, fragata bat egin zuen eskaintza gisa, eta hura zaharberritu du Jesus Mari Peronak.

Naufragoaren eskaintza bizirik

—AIORA LARRAÑAGA

SOLABERRIETA Orio

Jesus Mari Perona zaharberritze proiektu batean murgilduta egon da azken hilabeteetan. Orioko Kultur

Etxean ikusgai izan zuen erakusketa muntatzen ari zela, Hernanitik (Gipuzkoa) etorri zitzaion erroka. Izan ere, XVIII. mendean, Juan Antonio Leizaur marinelak, Terranovan izandako naufragio batetik bizirik atera ondoren, Zikuñagako Ama Birjinari eskaintza gisa egindako fragata zaharberritzeko eskatu zioten. «Zikuñagako Ama Birjinaren ermitako batzordea jarri zen nirekin harremanetan. Ontzia nire tailerrera ekartzeko eskatu nien, zer egin nezakeen ikusteko. Oso egoera txarrean zegoen, eta ia bidali nituen bueltan». Hala ere, maketaren istorioa kontatu ziotenean, harrapatu egin zuen proiektuak.

Peronak erroka gisa hartu zuen zeharo hondatuta zegoen ontzia zaharberritzea, eta lanean ari zen bitartean naufragoare-

kin enpatia sentitu zuela aitortu du. «Orion barran itotako asko izan dira, tartean gure familiako bi kide, eta etxean asko sentitu ditugun gertaerak izan dira. Ni neu ere erdi itoan ibilia naiz Bizkarraneko etxearen parean erroira erorita, eta badakit zer nolako estuasuna pasatzen den. Zer esanik ez, izoztuta dauden Terranovako urretan. Handik bizirik atera zenak zenbat promesa egin ote zituen, eta horietako bat Zikuñagako Ama Birjinari fragata hori eskaintzan ematea izan zen». Horregatik, proiektua onartzea erabaki zuen, berak egiten ez bazuen Juan Antonio Leizauren eskaintza desegingo zela jakitun baitzen.

Tailugile baten lana

Perona itsasontzi maketagile trebea izateaz gain, aditua da arlo horretan, eta urratsez urrats ekin zion lanari. Lehenik eta behin garbitu egin zuen, eta aztertzen hasi zenean «pieza ona» zela ohartu zen. «Bazituen ezau-garri interesgarriak: zedro egur onarekin egina zegoen, eta kon-

turatu nintzen ontzi hori landu zuena ez zela marinela, ebanista edo tailugile batek egina zela. Izan ere, marinelak egindako mota horretako eskaintzak baldarragoak izaten dira, labanarekin landutakoak askotan». Esku trebeko persona baten lana zela ikusi zuen. Izan ere, ontziaren kroskoa egur pieza batetik abiatuta egina zegoen, eta brankan zituen gila eta popako pieza ere egur horretan zizelkatuta zeuden, baita alboetako zintak ere. «Guk, esaterako, pieza horiek denak ondoren jartzen dizkiogu kroskoari», zehaztu du Peronak.

Sei hilabetez aritu da proiektu horretan lanean Perona, eta «pozik» dago emaitzarekin. «Oso gustura geratu naiz zaharberritzearekin. Interesgarria izaten da beti besteek aurretik landutako nola eginda dagoen aztertzea, eta konturatu nintzen bi lagun artean egindako pieza dela. Antzematen da aparejuak beste norbaitek egin eta muntatu zituela; agian, Leizaur marinelak bera izango zen, baina ezin dugu zehatz-mehatz jakin hori»,

aitortu du oriotarrak. Aparejuak dira ontziaren kubiartatik gora dauden elementuak: mastak, belak, sokak eta horrelakoak. «Xehetasunek atentzia eman zidaten. XVIII. mendean ez zituzten gaur egun ditugun baliabideak, eta polea batzuk botoi txikiek eginak zeuzkan eta beste batzuk, beriz, berunarekin». Ontzia oso hondatuta zegoenez, apareju asko txikituta zeuzkan, eta Peronak ezin izan zituen horiek guztiak errekupe-ratu, eta berriak egin behar izan zituen.

Hernanin, ikusgai

Norbaitek fragata bertatik bertara ikusi nahi izango balu, Hernaniko parrokiaren jarri dute ikusgai, Zikuñagako Ama Birjinaren kapera, martxoaren amaieran ermitara eramaten duten arte. Peronak ez daki fragatak nola zuen izena, eta zenbait xehetasunekin txosten bat egin badu ere, ontzi horren nondik norakoak ezagutzeko historian aditua den lagun batentzat proiektu polita izan litekeela proposatu du.

'Kirolaz haratago' erakusketa irekiko dute bihar Orion

—ANDREA ZIPITRIA Orio

Kirolaz haratago erakusketa zabalduko dute aste honetan Orion. Gipuzkoako Kirol Egokitu-tuen Federazioak (GKEF) azken urteetan antolatu dituen txapelketa eta ekitaldietan egindako argazkiak biltzen ditu bildumak, eta bihartik otsailaren 9ra bitartean izango dira ikusgai Kultur Etxean.

Bihar egingo dute erakusketa- ren irekiera ekitaldia, 18:00etan hasita, eta bertan izango dira Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioako arduradun Amaia Elizondo eta Alicia Figuerola, baita herriko hainbat kirolari ere. Hala, bihar arratsaldetik aurrera, astelehenetik ostiralera, Kultur Etxearen ordutegian izango da zabalik erakusketa.

N-634 errepideko erre bat itxiko dute Anibarko Portuan

ORIO // Datozen hiru egunetan erre bat itxiko dute N-634 errepidean, Anibarko Portuko parea-n, lanak egiteko. Mozketa 20:00etatik 06:00ak arte egingo dute, gaurtik ostegunera bitartean. Autoen pasaera semaforo bidez kontrolatuko dute, eta ibilgailuek txandaka pasatu beharko dute ordu horietan. Udaletik azaldu dutenez, «zirkulazioan ahalik eta eragin txikiena» izateko erabaki dute lanak gauzez egitea.

Andatzako bertso afarirako txartelak salgai daude

AIA // Andatzako auzo elkarteak bertso afaria antolatu du otsailaren 10erako elkartearen bertan. Aritz Hernandez Larrume, Unai Mendizabal eta Iban Gorriti Beltza ariko dira bertsoan. Bertso afarian parte hartu nahi duten herritarrek dagoeneko eman dezakete izena Andatzako elkartearen Instagram kontuan. Afarirako txartelak 28 eurotan jarri dituzte salgai elkartearen, eta horiek erosteko azken eguna otsailaren 3a izango da.

Ekonomia sozialaz jarduteko taldea sortu dute Zumaian

ZKOOP egitasmotik sortu dute taldea, «Zumaian ekonomia sozial eraldatzailea sustatzea eta ideia proiektuak garatzea» helburu hartuta.

-ONINTZA LETEARRIETA

Zumaia

Ekonomia soziala landuko duen talde berria sortu dute Zumaian: Alberga. Udalak iaz abiatutako ZKOOP egitasmoan du jatorria, taldeko kideek ohar bidez jakinarazi dutenez. Datozen hilabeteetan hainbat jarduera egiteko asmoa dute, baina oraingoz taldearen helburuen berri eman dute.

Xede nagusiari dagokionez, ekonomia pertsonen zerbitzura egotea nahi lukete: «Zumaian lana egiteko beste modu bat sustatu nahi dugu, non norbanako-

en interesek kolektiboaren interesekin bat egiten duten eta ekonomia pertsonen zerbitzura dagoen».

«Zumaia eta zumaia beharrak identifikatu, eta horiek asetzeko tresnak pentsatu eta garatzen» hastea da Albergaren beste helburuetako bat. Gainera, ekonomia sozial eraldatzailean oinarritzen diren proiektuak sustatzea, eta proiektu horien aterpe izango diren espazio fisikoak sortzeko asmoa ere badute. «Lanaren burujabetza ahalbideratuko duten bideak jorratu», «ekintzaileen eta proiektu sozialen arteko



Alberga sortu duten Zumaia lagunak. ALBERGA

saretzea, elkarlana, elkarlaguntza eta interkooperazioa sustatu eta garatu» eta «udalean eta gobernantza eredu ekonomia sozial eraldatzailearen ikuspegia txertatu», horiek dira Albergak egin asmo dituenak.

Jardueren aldetik, hausnarke-ta guneak sortzea edota ekonomia sozial eraldatzailearen sozializazio, hedapen eta komunikazioan lan egiteko hitzaldiak antolatzea edo azoka eta erakusketetan parte hartzea planteatzen dute Albergako lagunek, beste jarduera askoren artean.

Xabier Azkuek *Baleike* aldizkarian idatzitako artikulu batek atera dute Alberga izena. Taldekideen arabera, hitz horrek baditu elkarteak barne bildu nahi dituen hainbat adiera: «Alberga hitza aukeratzeak badu arrazoia, herrian jada erabiltzen ez den hitza berreskuratzeko gain (espazio horien galeragatik, besteak beste), elkarteak barne bildu nahi dituen beste hainbat

adiera ere baditu hitzak: elkartzeko lekuak izan dira albergak, elkarrekin ikastekoak, elkar babestekoak. Gaur egunera ekarritu, balioa eman nahi izan diegu eta aitortza egin nahi diegu urte luzez emakumeek albertan egin dituzten lan erreproduktiboak eta auzolanari emandako garrantziari. Balio handiko espazioak izan ziren albergak, eta guk ere halako eremuak eta sareak sortu nahi ditugu abiatuko ditugun ekintzen bidez».

Irudia Zumaia



Estalpe berria egiteko lehen pausoak

Estalpe berria egingo du udalak Kofradian. Eraikinaren terraza kaltetuta zegoen eta azterketak egin ondoren, egitura botatzea eta berria egitea erabaki zuten teknikariek. Hala, pasa den astean eraitsi zuten terraza. Estalpe berria datozen santelmoetarako amaituta egotea aurreikusten dute, eta eraitsitakoaren erreproduktzioa izango dela aurreratu du udalak. FELIX AIZPURUA

Turismo jasangarriaren estrategiarekin bat egin du UKUEK

-O. LETEARRIETA

Beste urte batez, Fiturren izan dira UKUE Urola Kostako Udaltaldeko ordezkariek, bi xede nagusirekin: *Elkanoren talaia: itsas zeharkaldiak* egitasmoa aurkezteko, batetik, eta Biosphere zigilua izenpetzeko, bestetik. «Biosphere Certified Destination iraunkortasuna neurtzeko sistema bat da, eta helburu du etengabeko hobekuntzarako tresna izatea, modu horretara, turismo helmuga, enpresa edota zerbitzuen apustu eta konpromiso hori aitortzeko», azaldu zuten Urola Kostako Udaltaldeko arduradunek.

Biosphere zigiluaren bitartez, turismo jasangarriaren estrategiarako konpromiso gutuna sinatu du udaltaldeak. «Guretzat estrategikoa da komunitate horren parte izatea, eta helburu

jasangarriak lortzeko bidea jorratzen jarraituko du udaltaldeak, GIH Garapen Iraunkorren Helburuen eta euskararen ikuspegitik», azpimarratu zuten Lourdes Salsamendi udaltaldeko lehendakariak.

Jasangarritasuna hiru arlotan lantzen dutela azaldu zuten Salsamendik, baita bost herriak –Aia, Getaria, Orío, Zarautz eta Zumaia– elkarrekin ari direla lanean: «Turismoaren garapena modu jasangarrian ulertzen dugu gizarte edo eremu sozialean, ekonomikoan eta ingurumenekoan. Apustu hori, gainera, bost udalerriek egiten duten apustu bateratua da, eta, horregatik, elkarrekin lan egin dugu, norabide eta helburu berarekin: jasangarritasunean oinarritutako turismo estrategia duen eskualde bat eraikitzea».



Iraetako igandeko herri kirol saioetako partaideak; tartean, Paulo Azpiazu txapelarekin. IBON ERRAZU

Paulo Azpiazuk irabazi du Iraetako Errota Harria Harrijasotze Txapelketa

Bikotekako Pilota Txapelketa Jon Mirandak eta Adonis Gelisek irabazi dute • Harri jasotzaileen txapelketaz gain, aizkolarien erakustaldia ere izan da • Ostiralean jarraituko dute santainesek

–NEREA URANGA
–JULENE FRANTZESENA

Zestoa
Larunbatean hasi zituzten santainesak Iraetan txupinazoarekin eta Zestoako txarangaren doinuekin. Hala, asteburuan festa giroa nagusi izan da auzoan, eta bai larunbatean zein igandean kirolerako jardunaldiak ere izan dituzte, besteak beste.

Larunbat eguerdian jokatu zituzten santainesetako pilota txapelketako finalak. Partidak hasi aurretik, *Vamos al fronton* pieza joaz egin zuen txarangak, atzetik pilotariak zituela, auzoko elkarretetik pilotalekura arteko bidea.

1978an inauguratu zuten Iraetako frontoia, eta ordutik urtero jokatu izan dute auzoko festen bueltan pilota txapelketa. «Pandemiaren urtean ez zen jokatu, eta aldi hori kenduta, beste urte guztietan jokatu da txapelketa. Kontuak aterata, aurten 45.a izan beharko luke, baina jokatu gabeko urtea kontuan hartuta, 44.a da», azaldu zuen Jon Uria pilota txapelketaren antolatzaileak eta epaileak finalak hasi aurretik.

Iazko azaroaren 13an hasi zuten bikotekako Iraetako pilota txapelketa, zortzi bikotek parte

hartuz. Larunbatean, hirugarren eta laugarren postuak eta finala jokatu zituzten. Lehen partida Pello Etxabek eta Aitzol Ollidenek Mikel Armendarizen eta Ioritz Arantzetaren kontra jokatu zuten, eta Etxabe-Olliden izan ziren nagusi 18 eta 13 eginda.

Pilota txapelketako finala, berriz, Joseba Izagirre eta Lier Azagirre bikotearan eta Jon Mirandaren eta Adonis Gelisen artean jokatu zen. 22 eta 13 egind, a Mirandak-Gelisen izan ziren Iraetako Bikotekako Pilota Txapelketako irabazleak.

Larunbat iluntzean, berriz, garagarjoaren bueltan herri afaria eta kontzertuak izan zituzten Iraetan.

Herri kirolaren txanda

Asteburuko Santa Ines jaietako ekintzak herri kirol erakustaldiarekin bukatu zituzten igande arratsaldean. Dozenaka lagun izan ziren Iraetako frontoian, txapelketetako saioez eta erakustaldiaz gozatzeko. Gainera, ohitura den gisan, Errota Harria Harrijasotze Txapelketa ere jokatu zuten.

Banakako Aizkolaria Txapelketako bosgarren kanporaketa jokatu zuten aurrena. Aizkorian aritu ziren Hodei Ezpeleta eta

Jokin Urretabizkaia *Basozabal* nahiz Joxean Etxeberria eta Luis Txapartegi. Horiiek sei izakeratako hogeiei enbor ebaki zituzten. Ezpeletak eta Basozabalek 16 minutu eta 12 segundo behar izan zituzten lanak bukatzeko, eta 17 minutu eta 45 segundo, berriz, Etxeberriak eta Txapartegik.

Ondoren hasi zen Errota Harria txapelketa. Bost harri jasotzailek –Mikel Lopetegi *Urrak*, Gari Garmendia *Garmendia II.ak*, Paulo Azpiazuk, Xabat Olaizolak eta Xabier Aranburu *Gutzak*– parte hartu zuten, eta Azpiazu nagusitu zen. Hain zuzen ere, 107,2 kiloko bola 31 aldiz jaso zuen hark hiru minutuko txandan. Haren atzetik sailkatu ziren Urria (29 altxaldi), Garmendia II.a (25 altxaldi), Gutzak (20 altxaldi) eta Olaizola (16 altxaldi).

Gizonen saioa eta gero, erakustaldia eskaini zuten bi erakumek. Hain zuzen ere, Olaia Esnaola eta Maddi Gesalaga aritu ziren harria jasotzen.

Datorren asteburuan jarraituko dute jaiak Iraetan. Besteak beste, ostiralean (22:30) mus txapelketa izango da Bekotxen, eta larunbatean Umeen Eguna ospatuko dute: pintxo lehiaketa, puzgarriak, trena eta txokolatada izango dituzte.

Irudia Azpeitia



Sansebastianetan omenaldia jaso dute

Ehunka eta ehunka herritarrek parte hartu dute sansebastianetako danborradetan Azpeitian. Ostegun iluntzetik ostiral gauerdia artean danbor hotsak izan ziren nagusi Azpeitian, eta tartean, bi omenaldi izan dira. San Sebastian bezperan, helduen danborradan, Ardozaleak elkarteak danborradan 50 urte egin dituelako omenaldia –goiko irudian, Martxial Elorza eta Iñaki Portilla taldekideak Nagore Alkorta alkatearekin– jaso zuen. Hurrengo egunean, haurren danborradaren garaian, Juan Antxieta musika eskolari aitortza egin zion udalak –beheko irudian, udal ordezkari politikoak eta musika eskolako kideak–, musika eskolak 40 urte bete dituela eta. MAILO

OIAZABAL/NEREA URANGA

Irudia Zarautz



Giro bikaina izan dute Urtetako jaietan

San Sebastian jaiak ospatu dituzte asteburuan Zarautzko Urteta auzoan, eta festa giroa izan da nagusi. Larunbatean, jendetza bildu zen mus txapelketan, eta igande eguerdian, hotzari aurre eginda, auzoko pilotalekua goraino bete zen Izetaren Eskolako harri jasotzaile eta aizkolarien lana eta auzotarren arteko desafioa ikusteko; ezkonduak eta ezkongabeak elkarren aurka aritu ziren sokatiran. ALS.

Eman daiteke izena emakumeak ahalduntzeko ikastaroetan

Urtarriletik ekainera bitartean egingo diren bost ikastaro antolatu ditu udalaren Berdintasun Sailak • Urtarrilaren 31ra arte eman daiteke izena ikastaro guztietan

-ANDONI ELDUAIEN *Azkoitia*
Azkoitiko Udalaren Berdintasun Sailak urtarriletik ekainera bitartean emakumeak ahalduntzeko prestatu dituen ikastaroen berri eman du. Bitarte horretan, haurdunaldirako yoga ikastaroa, Batukada Feminista, xilografia ikastaroa, *Hitz Ahalduntzen* eta *Berdintasuna Trikotatzen* saioak eskainiko dituzte, eta interesa dutenek zabalik dute izen ematea, hilaren 31ra artean.

Batukada Feministaren saioak Azkoitian zein Azepeitian eskainiko dituzte aurreneko aldiz. Hain zuzen ere, astelehenetan izango dira saioak ekainaren 12ra bitartean, 18:00etatik 20:00etara, Xabier Munibe Ikastolan eta Azepeitiko Emakumeen Txokoan, txandaka. Udalak azaldu du 2022ko ikastaroaren jarraipena dela, baina parte hartu nahi dutenentzat izen ematea zabalik dagoela. Haurdunaldirako yoga ikastaroa ere astelehenetan izango da, urtarrilaren 23tik ekainaren 26ra; 18:30etik 20:00etara egingo dituzte yoga saioak, Elkargunean. Xilografia ikastaroaren saioak, berriaz, asteazkenetan izango dira, martxoaren 1etik apirilaren 19ra bitarte-



Udazkenean egin zuten *Erditu ondorengo* ikastaroan hartutako irudi bat. AZKOITIKO UDALA

an; Kultur Etxeko laugarren solairuan elkartuko dira, 18:00etatik 20:00etara bitartean. *Hitz Ahalduntzen* ikastaroa, bere aldetik, asteazkenetan eta ostegunetan egingo dute ekainaren 15era bitartean, 15:00etatik 17:00etara, Elkargunean. Puntu oinarri duen *Berdintasuna*

Trikotatzen ikastaroari dagokionez, asteartean eta ostiralean egingo dute, 15:15etik 16:45era, otsailaren 14tik maiatzaren 5era.

Izena emateko

Emakumeak ahalduntzeko urteko lehen seihilerako antolatutako ikastaroetan izena eman

nahi dutenek urtarrilaren 31ra arteko epea dute horretarako.

Berdintasuna@azkoitia.eus edo *azkoitia@azkoitia.eus* helbide elektronikoetara mezua idatzita eman dezakete izena; edo, bestela, 943-54 20 14 edo 943-08 00 80 telefono zenbakietara deituta.

Energia arlorako teknikaria kontratatuko du udalak, Lanbiderekin

-A. ELDUAIEN *Azkoitia*

Lanbide diruz lagunduta, Azkoitiko Udalak Kudeaketa Energetikoaren eta Aldaketa Klimatikoaren gaineko teknikaria kontratatuko du lanaldi osorako, urtebeterako. Erakundeak jakinarazi duenez, abian da hautaketa prozesua, eta izena emateko epea bihar itxiko da. Izena Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren webgunean eman beharko dute interesa dutenek.

Hautagaiek hainbat baldintza bete beharko dituzte lan eskaintzara aurkezteko. Hain justu, Ingeniaritza titulua edo zientzia arloko gradua izatea eskatuko da; euskaran C1 edo baliokidea den maila egiaztatzea; informatikan ezagutza izatea; langabea izatea nahiz Lanbiden enplegu eskatzaile bezala alta emanda egotea; 16 eta 30 urte bitartekoa izatea; Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan bizitzea; eta lan kontratua praktikaldian hitzartzeko eskakizunak betetzea.

Lan eskaintza hori Europako Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatu dute udalak eta Lanbidek.

Apirilaren 29an eta 30ean izango da aurten Azkoitiko Duatloia

-ANE OLAIZOLA *Azkoitia*
Azkoitri Azkoitiko triatloi klubak antolatuta, duatloiak hartuko du datorren apirilaren 29ko eta 30eko asteburua. Izan ere, Azkoitiko Duatloia izenpean, hainbat proba prestatuko dute ordurako, eta aurten, bi egunez jokatuko dituzte lasterketak.

Iaz bezala, umeentzako probak, supersprint distantziako paraduatloia eta duatloi herrikoia izango dira egun horietan, baita distantzia motzeko Azkoitiko Duatloia ere. Aurten, igande goizean jokatuko dute azken proba hori, eta lehenengo aldiz, triatloian federatuek nahiz fede-

ratu gabeek parte hartu ahal izango dute –orain arte soilik federatuek eman zezaketen izena–.

Apirilaren 29an, larunbatez, umeen probak jokatuko dituzte goizean, adinka banatuta: LH1 eta LH2ko haurrek, 200 metro lasterka, kilometro bat bizikletan eta beste 100 metro korrika egin beharko dituzte; LH3-LH4ko umeek 500 metro korrika, bi kilometro bizikletan eta ehun metro korrika egingo dituzte; LH5 eta LH6ko umeek, berriaz, 500 metro korrika, hiru kilometro bizikletan eta 200 metro korrika egingo dituzte; azkenik,

DBHkoek (12-16 urte) kilometro bat korrika, bost kilometro bizikletan eta 500 metro korrika egiteko ibilbidea izango dute.

Arratsaldean, berriaz, bi proba jokatuko dituzte: supersprint distantziako paraduatloia eta distantzia bereko duatloi herrikoia; azken horretan 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute.

Gipuzkoako txapelketa

Hurrengo goizean, apirilaren 30ean, distantzia motzeko duatloia izango da, federatu nahiz federatu gabekoentzat. Horiek hamar kilometro korrika, 40 ki-



2022ko duatloia. ANDONI ELDUAIEN

lometro bizikletan eta bost kilometro korrika egin beharko dituzte. Gainera, federatuta daudenentzat Gipuzkoako Distantzia Motzeko Txapelketa ere izango da hori.

Azkoitri adierazi duenez, oraingoz ez dute izen ematea zabalduko; aurrerago jakinaraziko dute inskripzio epea.

Haurtzaroko sexu abusuen gaineko azken saiorako izena eman daiteke


-IHINTZA ELUSTONDO

Azepeitia

Urtarrilaren 30ean izango da udalak antolatutako *Sexu abusuhurtzarokoan ikuspegi feministatik*. Ezkutuko errealitate matxistak jardunaldien azken saioa. *Haurtzarokoan ematen den sexu indarkeria ikuspegi feministatik* izeneko hitzaldia emango du Norma Vazquezek Basazabal, 18:30ean.

Joateko, aurrez eman behar da izena, *emakumetxokoa@azepeitia.eus* helbidera idatziz edo 68875 10 00 telefonora deituta.

Irudia



Jende asko bildu da Oletako mendi martxan

Azkoitiko Anaitasuna Mendi Bazkunak, Azpeitiko Sokaitz eskalataile taldeak, Azpeitiko Lagun Onak Mendi Bazkunak, Zestoako Agiro mendi klubak eta Oletan ere ez! nahiz Sañu Bizirik! taldeek 101 Arrazoi egitasmoa antolatu dute hil honen hasieratik maiatzaren hasierara bitarterako. Horren barruan, mendi irteera egin zuten igandean Oletara, baita hango estazio megalitikora bisita ere, Azpeitiko Antxieta arkeologi taldeko kide batek gidatuta. Mendi martxan ehun lagun inguruk parte hartu zuten, eta haietako batzuk mendietan zentral eolikoak eraikitzearen kontrako banderolak eraman zituzten. HITZA

Agirre lehendakariak hitzaldia eskainiko du Altunak bihar

POLITIKA // Nabil elkarteak, Nafar Estatuaren Berreskurapenaren aldeko mugimenduak, hitzaldia antolatu du biharko, Azkoitiko Elkargunean. 19:00etan hasita, Aitzol Altuna hizlariak Jose Antonio Agirre lehendakariak hitz egingo du, *Jose Antonio Agirre 'nafartar lehendakaria'* izenburupean.

Anaitasuna Mendi Bazkunak urteko batzarra egingo du

KIROLA // Anaitasuna Mendi Bazkunak urteko batzar orokorra egingo du bihar Kultur Etxeko bigarren solairuan, 19:00etan. Elkarteak bileran parte hartzeraz gonbidatu ditu bazkideak; batzordeak aurtengo ekintzen berri emateaz gain, bazkideek datorren urterakoak proposatu ahal izango dituzte.

Artxiboko Erdi Aroko Iturri Dokumentalen liburukiak aurkeztuko dituzte gaur

Eusko Ikaskuntzako kideek eta beste hainbat lagunek 1234tik 1535era arteko Azkoitiko Udaleko funtsak eta 1555era arteko kontuak digitalizatu, zaharberritu eta transkribatu dituzte.

-ANDONI ELDUAIEN

Azkoitiko Udal artxiboko Erdi Aroko Iturri Dokumentalen azken bi liburukiak aurkeztuko dituzte gaur, Elkargunean. Hitzordua 19:00etarako jarri dute, eta bertan udalak Azkoitiko herriak Gipuzkoako historian izan duen protagonismoa berresten duen bilduma aurkeztuko du. Hain zuzen, bi liburuek 1993an argitaratu zuten lehen liburukia osatzen dute, *Documentación Medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m.s. XIII-1500)*.

2024ko Hiri Gutunaren 700. urteurrena dela-eta egin du udalak lana. «Udalak ahalegin garrantzitsua egin du 1234. urtetik 1535. urtera arteko udaleko funtsak nahiz 1555. urtera arteko udaleko kontuak digitalizatzeko, zaharberritzeko, transkribatzeko eta argitaratzeko», adierazi du Juan Bautista Mendizabal Ondare zinegotziak.

Erakundeak azaldu duenez, Eusko Ikaskuntzako Rosa Ayerrek, Victor Herrero, Ana Maria San Miguelek eta Montserrat Fernandezek parte hartu dute lanetan. Era berean, hainbat pertsona ezagunek ere kolaboratu dute: Jose Ignacio Telletxeak, Simon Aranbarrik, Sebastian Goñi kanonigoak, Joseba Goñik



Zenbait dokumentu digitalizatu dituzte Udal Artxiboan. A.U.

eta Saturnino Ruiz de Loizaga Vatikanoko artxibozainak. «Horiei esker Aita Santuaren buldak eta latinez zeuden dokumentuak itzuli ahal izan ditugu. Urteetako lana izan da», azaldu du Mendizabalek.

«Aparteko tresna»

Argitalpenok «aparteko tresna» dira Mendizabalentzat, horiek Gipuzkoaren «historian sakontzen» laguntzen baitute. «Azkoitia, Azpeitia, Tolosa eta Donostia Gipuzkoako hiriburuak izan zi-

ren», nabarmendu du Ondare zinegotziak. Halaber, udalak azpimarratu du gaurko ekitaldiak «interes berezia» sortu duela historiako irakasleen, unibertsitateko ikasleen, ikerlarien, eta, oro har, Azkoitiko historia gustuko dutenen artean. «Harritura geratuko dira udaletxearen edo parrokiari buruzko agirien, harresien, Nafarroako gerren edo urte nahasi haietako arazo sozialen nahiz politikoaren inguruko dokumentazioa ikustean», dio Mendizabalek.

Eskelak

-ESKERTZA-

Juana Lazkano Ariztimuño

Ostiralean hil zen, Gabirian, 84 urterekin.

Larunbateko hileta elizkizunera joan ziren eta doluminak bidali dituzten guztiei familiaren esker ona.

Bederatziurreneko meza otsailaren 5ean, 11:15ean izango da Gabiriako Andre Mari elizan.

GABIRIAN, 2023ko urtarrilaren 24an.

Margari Arruabarrena Gorostidi

Hainbeste amets, negar ta desio ez du ekaitzak hondora botako, salbatuko da goizeko ontzia kaiaren bila hegaka joateko.

Etxekoak

ZALDIBIAN, 2023ko urtarrilaren 24an.

Margari Arruabarrena Gorostidi

Aitorren lagunaren partetik, doluminak eta besarkada handi bat sendiari.

ZALDIBIAN, 2023ko urtarrilaren 24an.

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Nerea Uranga.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@uktt.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitate: Urola Kostak: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 49 87 23. zarautz@uktt.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@uktt.eus.
Zumala: 685 71 20 90. zumala@uktt.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@uktt.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@uktt.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@uktt.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27. zestoa@uktt.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiak

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
V 6°
A 1°

Mareak

| | |
|-------------|-------------|
| Itsasgora | 06:08-18:37 |
| Metroak | 4,53-4,12 |
| Itsasbehera | 12:20 |
| Metroak | 0,15 |

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Gaur, asteartea

Aurkezpena

Azkoitia. Udal artxiboko Erdi Aroko Iturri Dokumentalen azken bi liburukiak aurkeztuko dituzte, 19:00etan, Elkargunean.

Solasaldia

Azkoitia. Azkoitiko Irakurle Taldearen saioa, 19:00etan, Kultur Etxean. Nerea Ibarzabalen *Bar Gloria* liburua izango dute hizpide, idazlea bertan dela.

Bihar, asteazkena

Hitzaldia

Azkoitia. Aitzol Altunak Nafarroari eta Jose Antonio Agirre lehendakariari buruzko hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, Elkargunean.

Saioa

Azpeitia. Nerabezaroari buruzko saioa, 18:00etan, Azoka Plazan.

Aurkezpena

Azpeitia. Euskara Planaren behin-behineko bertsiorearen aurkezpena, 18:30ean, Basazabalen.

Hitzaldia

Orio. Haurren elikadurari buruzko hitzaldia, 18:00etan, Maria Maestra Haurreskolan.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

«Zuzenekoan antza duen diskoa bilatu nahi izan dugu oraingoan»

EÑAUT GAZTAÑAGA EZPALAK TALDEKO GITARRA JOTZAILEA

Ezpalak taldeak *Hortz aina* diskoa kaleratu zuen iaz urtea amaitu aurretik, taldearen hirugarren lan luzea. *Kolpatuz topatu* lanaren «eboluzio naturala» da diskoa.

-ANDONI ELDUAIEN Zestoa
Zer bildu duzue *Hortz aina* hots azken lanean?

Kolpatuz topatu diskoaren eboluzio naturala da *Hortz aina* hots. Hirugarren disko baten transmititzeko gogo genuen bigarren diskoaren biran jo ditugun kontzertuetan guk sentitu dugun energia guztia. Era berean, diskoa ere zuzenagoa izatea nahi genuen. Jendeak esaten digu lan gordinagoa dela edo punk britainiarraren ukitu handiagoa dela. Betiko Ezpalak badago diskoan, baina baita aipatutako eboluzio hori ere.

Ezpalak lehen diskoa kaleratu zenutenean, «sortzen» ari zinetela esan zenuten. Norabidea finkatuta al du taldeak?

Baietz esango nuke. Abestiak grabatuta zeuden Juanjo [Berasain, taldeko ahotsa] taldean sartu zenerako; nahiz eta gero berak ahotsa grabatu zuen, eginda zegoen guztia. Taldekide guztion gustuko itereira puntua aurkitu genuen gero, 90eko hamarkadako musika, Seattleko eraginak... Kontzertuak ematen hasi ginen, abesti horiek indartsuak zirela ikusi genuen. Hain zuzen,



ALAIN MARTINEZ/HOLYFIRESTUDIO

taldearen alde makarra hori, energia hori gehiago gustatzen hasi zitzaigun. Kontzertuak ematen joan garen heinean, talde bezala ere ezagutzen joan gara. Guztion gustuak bat egin da iritsi gara gaur egiten dugun musika egitera, guztioi eroso sentitzen garen estilora.

Zer nabarmenduko zenuke musikalari zuen azken lanaz?

Diskoan post punk talde britainiarren eragina nabaria da, esaterako, Idles, Shame eta Fontaines DC taldeena. Dena den, asko entzuten dugu Ohsees eta Ty Segall talde amerikarren musika ere. Bi eragin handi horien arteko zerbait da Ezpalak, baina, noski, gure nortasun propioa erantsita. Zuzenekoan antza duen diskoa bilatu nahi izan dugu oraingoan, hala nola soinua, gordintzua eta energia bortitzagoa; hori transmititu nahi genuen *Hortz aina* hots diskoan. Zaila da disko batean zuzeneko baten energia islatzea, baina azken diskoa taldea gaur denetik gertuago dago.

Diskoko abestiak iritzi adierazleak direla esan daiteke. Letrak ere halakoak al dira?

Letretan ez dugu kontzeptu nagusi bat agertu nahi izan. Halere, badaude gauza berdintsuak abesti batzuetan. Pandemia baten ostean sortutako diskoa da, egoera berezi baten ondorengo diskoa, eta hori guztia islatzen da letretan. Ideia argi batzuk badaude, hala nola gizartearekiko deserosotasuna, zalantzak, galderak eta kritika soziala. Ez zait gehiegi gustatzen letrak azaltzea, polita baita pertsona bakoitzak horiek irakurtzea, bere egitea eta letren bidez bere istorio propioa eraikitzea. Abestiak zuzenagoak, *kaineroagoak*, motzagoak eta biziagoak dira, eta horregatik, gordinagoak ere bai.

Abestien arteko kohesioa bilatu al duzue?

Bai, bi bloke daude diskoan. Batek, kritika gehiago egiten du, eta besteak, bizitzari buruzko galderak egiten ditu; pertsonalagoa da bigarren bloke hori. *Hortz aina* hots izenburuak guztia batzen

du: hainbat aho, hainbat iritzi; hainbat pertsona, hainbat zarata. Bakoitza mundu bat da, eta bakoitzak ideia nahiz iritzi desberdinak ditu.

Urte zailak igaro diren arren, sortzen jarraitzen duzue, hiru urtean hiru lan kaleratuta.

Horretara ohitu gara gaur egun. Azkar eman behar da jaten, eta sare sozialetan aktibo egon behar da. Bira bat amaitutakoan ez dago atsedean hartzeko denbora asko; izan ere, azkar bizitzera ohitu gara, azkar kontsumitzera. Disko bat aterata eta kasik segituan hil egiten da hura, entzuteko mila gauza daudelako edo denborarik ez dugulako; ez da lehen bezala. Disko bat erosi eta hari bueltak eta bueltak ematen zitzaizkion lehen, eta posible zen hasieran abesti bat ez gustatu arren, gerora hura gustukoa izatea. Egun zaila da hori, kontsumitzaile eragatik. Horregatik, aktiboago egotea eskatzen du egoerak.

Nolako harrera izan du lanak?

Ona, energia asko duten hiruzpalau abesti ditugu eta zuzenekoetarako. Oso ondo ari dira funtzionatzen kantu horiek. Gainera, emandietara jende asko ari da etortzen, eta ikusi dugu taldearekiko interes bat sortu dela. Nahiz eta badakigun batzuetan ez dela erraza izaten, ikusi dugu jendea kontzertuetan sartzeko dagoela. Disko honekin jendea taldea ezagutzen ari da, eta pixkanaka konexio bat ari gara lortzen publikoarekin.

Zozketak 29 HITZAKIDE TXOKOA

SASKIBALOIA

GIUK GIPUZKOA BASKET-CLUB OURENSE BALONCESTO PARTIDARAKO SARRERAK

Urtarrilak 28, 19:00etan

[Zozketa zenoakia: 29]

Urola Kostako Hitzak sarrera bikoitza zozkatuko du HITZAKIDEEN artean.

Zozketan parte hartzeko deitu: 943-56 01 64 zenoakia edo webgunean ZOKZKETAK atalean izena eman. Epea: urtarrilak 26, 12:00ak arte. Saridunen izena urtarrilaren 27an, ostiralea, argitaratuko dira.



VS



Elkarrizketa osorik irakurtzeko, bisitatu webgune hau: urolakosta.hitza.eus